2020ko abenduaren 12an, EAJ-PNV, EH Bildu, Elkarrekin-Podemos alderdiek eta ELA, LAB, UGT, CCOO, STEE, ESK, Hiru, Etxalde, EHNE, CGT eta CNT sindikatuek adierazpen solemne bat aurkeztu genuen Bilboko Euskalduna Jauregian, eta Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde guztiei helarazteko konpromisoa hartu genuen.

Gure hitzari leial izanik, guk, **Amasa-Villabonako Udaleko ordezkariok**, adierazpen hau sinatu nahi dugu gaur gure udalerriko herritarren aurrean.

**EAJ-PNV, EH Bildu, Elkarrekin-Podemos, ELA, LAB, UGT, CCOO, STEE, ESK, Hiru, Etxalde, EHNE, CGT eta CNT-ren ADIERAZPENA**

Gaur gure udalerrikohiritarren aurrean aurkezten garen alderdi politikok pertsona euskaldun presoei Espainiako Gobernuak aplikatzen dizkien politikei buruzko gure azterketa eta balioespena ezagutarazi nahi dizkiegu Espainiako Gobernuari eta euskal zein nafar iritzi publikoari.
Sinatzen dugun alderdiok, euskal erakunde gehienetan eta sindikatu gehienekin askotan adostu ditugun adierazpenetan honako hau eskatu izan dugu: "*Espetxeetako Lege Orokorrak aurreikusten duena bete dadila, askatasunaz gabetzen duten zigorrak bete daitezen norbere ingurunetik deserrotu gabe, birgizarteratzearen printzipioek adierazten duten moduan. Zentzu honetan, 2011 urtean ETAk jarduera armatua utzi zuenean irekitako denboraldi berriaren barruan honako hau adierazten dute: beharrezkoa dela beste espetxe politika bat, presoek beren gizarte eta familiako erroak dituzten lekuetatik urrun zigorrak bete beharra ekidingo duena. Politika berri horrek presoak bere familiarekin harremanak izatea erraztuko du eta adin txikiko seme-alaben ongizateari begiratuko dio, gurasoek haiekin egoteko duten eskubidea defendatuz*".

Covid-19ak eta konfinamenduak pandemia honek espetxeratuentzat dituen ondorioei buruzko eztabaida ireki dute. Hilabete hauetan ugariak izan dira erakunde politiko eta sozialen ekimenak, nazioarteko erakundeen gomendioak jarraituz, Europatik, Madriletik, Gasteizetik eta Iruñetik eskaera hau egin dutenak: dagokien agintariek har ditzatela neurri espezifikoak pertsona presoei begira, haien osasun eta segurtasun baldintzak hobe daitezen eta hobera egin dezaten osasun krisialdiaren ondorioek bereziki ukitu dituzten legedi juridikoko eskubideek ere.

Zentzu honetan, bereziki garrantzitsua jotzen dugu 2020ko apirilaren 27ko Eusko Jaurlaritzaren proposamena, honako hau baieztatzen duena: "*Espetxeetako Lege Organiko Orokorraren 12.1 artikuluaren arabera, Covid-19 izurritearen ondorioen testuinguruan eta osasun publikoa prebenitu eta babesteko helburuarekin, egitasmo orokor bat artikulatu behar da espetxeratu guztiak preso bakoitzaren familia ingurunetik hurbilen dauden espetxeetara hurbilduak izan daitezen*"

Euskal Autonomia Erkidegoko gizarteak bakearen eta bizikidetzaren aldeko apustu garbia egin du. Hainbat modutako eta etengabeko eskaerak egin ditu, iraganeko logiken araberako espetxe politika behin betirako gainditu dadin.

**Ondorioz, honako hau adierazi nahi dugu:**

1. 2011tik irekita dagoen errealitateari jarraiki, Espainiako Gobernuari helarazten diogu Euskadiko Autonomia Erkidegoko gizartearen eta adierazpen honen sinatzaileen sostengu osoa, pertsona euskaldun presoei legedi arrunt soila eta espetxe politika normalizatu bat aplikatzeko beharrezkoak diren urratsak ematea erabakitzen badu, aldatzear dugun iraganeko logiken araberako legedian oinarritutako egoera behin betiko gaindituz.

2. Espetxeetako Lege Orokorrean aurreikusitakoa betetzea eskatzen dugu berriro ere, askatasunaz gabetzen duten zigorrak betetzean deserrotzerik gerta ez dadin. Askatasunaz gabetzen duten zigorrak familia eta gizarte sustraiak dituzten lekuetatik urrun betetzea ekidingo duen espetxe politika bat ezinbestekoa jotzen dugu.

3. Premiazkotzat jotzen dugu egungo urruntze politikari amaiera ematea eta Covid-19aren egungo testuinguruan gure sostengua adierazten diegu honako egitasmo hau artikulatzera zuzendutako proposamen guztiei: espetxeratu guztiak orokorrean eta pertsona preso bakoitza, partikularrean, hurbil ditzatela beren familia ingurunetik hurbilen dauden espetxeetara. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan Martutene, Basauri eta Zaballako espetxeetan birkokatzea dakar neurri horrek.

4. Helburu hau betetzeak modu erabakigarrian esku hartuko luke euskal gizartean eta politikan iraganarekin lotutako etapa bat ixten eta aukera emango luke, biktima guztiak oroituz, bizikidetza demokratikoan ardaztutako orainaldiko eta etorkizuneko denboraldi berri bat eraikitzen.

Akordio hau Etxerat elkarteari helaraztea, konpromiso hau gizarteratzeko eta ezagutarazteko.

Amaitzeko, egoera hau jasaten ari diren pertsona presoen senitarteko eta adiskideei ezagutarazi nahiko genieke hartua dugun konpromisoa, aipatu helburua lortzen laguntzeko beharrezkoak diren urratsak ematekoa.

**SINATZAILEAK**

**Alkatea:** Beatriz Unzue Esnaola

**Lehen alkateordea:** Xabat Laborde Etxabe

**Bigarren alkateordea:** Arantza Lopez Luloaga

**Zinegotziak:**

- Gorka Kamio Rodriguez
- Ander Goikoetxea Arana
- Amagoia Aguirre Alcorta
- Garazi Bengoetxea Iguaran
- Maite Izagirre Irazustabarrena
- Francisco Antonio Agirre Arrizabalaga
- Amaia Irazusta Otegui
- Juan Manuel Izagirre Irazustabarrena
- Juan Maria Iparragirre Irazusta

El pasado 12 de diciembre 2020, los partidos **EAJ-PNV, EH Bildu, Elkarrekin-Podemos** y los sindicatos **ELA, LAB, UGT, CCOO, STEE, ESK, Hiru, Etxalde, EHNE, CGT y CNT,** presentamos en elPalacio Euskalduna de Bilbao, una solemne declaración que nos comprometimos a trasladar a todas las instituciones de la Comunidad Autonoma Vasca.

Fieles a nuestra palabra, nosotras y nosotros, **electos del Ayuntamiento de Amasa-Villabona**, queremos hoy suscribir esta declaración ante la ciudadanía de nuestro municipio.

**DECLARACION DE**
**EAJ-PNV, EH Bildu, Elkarrekin-Podemos, ELA, LAB, UGT, CCOO, STEE, ESK, Hiru, Etxalde, EHNE, CGT y CNT**

Los partidos políticos que hoy comparecemos ante la ciudadanía de nuestro municipio queremos trasladar al Gobierno Español y a la opinión pública nuestro análisis y valoración en relación a las políticas aplicadas por el Gobierno Español a las personas presas vascas.

Son numerosas las ocasiones en que los partidos firmantes a través de acuerdos en nuestro ayuntamiento y en la mayoría de las instituciones vascas y los sindicatos a través de declaraciones, hemos apelado al "cumplimiento de lo previsto en la Ley General Penitenciaria para evitar el desarraigo en el cumplimiento de las penas privativas de libertad, conforme a los principios de reinserción y resocialización de las mismas, manifiestan su desacuerdo con la política penitenciaria de alejamiento y en este sentido, dentro del nuevo tiempo abierto tras el fin de la lucha armada de ETA en 2011, entienden necesaria una nueva política penitenciaria que evite un cumplimiento de penas privativas de libertad lejos de los lugares de arraigo social y familiar, facilitando la relación con sus familiares y en atención al bienestar de hijos e hijas menores de edad y en defensa de su derecho a estar con sus progenitores".

El Covid 19 y el confinamiento han abierto un debate sobre las consecuencias que esta pandemia esta teniendo en la población carcelaria. Han sido numerosas las iniciativas institucionales, políticas y sociales que, durante estos meses, y siguiendo las recomendaciones de los organismos internacionales, han solicitado desde Europa, Madrid, Vitoria y Pamplona sean adoptadas por las autoridades competentes medidas específicas para las personas presas en favor de la mejora de sus condiciones de salud y seguridad y derechos establecidos en el ordenamiento jurídico especialmente afectadas por el impacto de la crisis sanitaria.

En este mismo sentido, consideramos especialmente relevante la propuesta del Gobierno Vasco del 27 de abril 2020 que afirma *"de acuerdo con el artículo 12.1 de la Ley Orgánica General Penitenciaria, en el contexto de las consecuencias de la Pandemia del Covid 19 y con el objetivo de la prevención y protección de la salud pública, articular con carácter general para toda la población reclusa un plan de acercamiento a las cárceles más cercanas al entorno familiar de cada persona presa".*

La sociedad de la Comunidad Autonoma Vasca, ha hecho una apuesta decidida por la paz y la convivencia, y se ha expresado de múltiples maneras y de forma constante, demandando que se supere definitivamente una política penitenciaria que responde a lógicas del pasado.

**En consecuencia, queremos expresar lo siguiente:**

1. Atendiendo a la realidad abierta desde 2011, transmitir al Gobierno Español todo el apoyo de la sociedad de la Comunidad Autonoma Vasca y de los firmantes de esta declaración si se decide a dar los necesarios pasos para la aplicación exclusiva de una legislación ordinaria y una política penitenciaria normalizada a las personas presas vascas, superando definitivamente la situación actual todavía anclada en una legislación que responde a lógicas de un pasado en fase de superación.

2.- Reiteramos nuestra posición de, apelando al cumplimiento de lo previsto en la Ley General Penitenciaria para evitar el desarraigo en el cumplimiento de penas privativas de libertad, entendemos necesaria una política penitenciaria que evite un cumplimiento de las

penas privativas de libertad lejos de los lugares de arraigo familiar y social.

3.- En este sentido, entendemos urgente finalizar con la actual política de alejamiento y, en el contexto actual del Covid19, expresamos nuestro apoyo a todas aquellas propuestas dirigidas a articular, con carácter general y para toda la población reclusa, un plan de acercamiento a las cárceles más cercanas al entorno familiar de cada persona presa que, en el caso de la Comunidad Autonoma Vasca, implica la reubicación en los centros penitenciarios de Martutene, Basauri y Zaballa.

4.- La cumplimentación de este objetivo contribuiría decididamente a cerrar en la sociedad y en la política vasca una etapa relacionada con el pasado y permitiría, recordando a todas las víctimas, contribuir de una manera fundada en un nuevo tiempo de presente y de futuro centrado en la convivencia democrática.

Trasladar este acuerdo a la asociación Etxerat, impulsora del mismo, con el objeto de socializar y dar a conocer este compromiso.

Para finalizar, queremos transmitir a los familiares y allegados de las personas presas que sufren esta situación, nuestro compromiso para dar los pasos necesarios para coadyuvar a este objetivo.

**FIRMANTES:**

**Alcaldesa:** Beatriz Unzue Esnaola

**Primer Teniente de alcalde:** Xabat Laborde Etxabe

**Segunda Teniente de alcalde:** Arantza Lopez Luloaga

**Concejales/as:**

- Gorka Kamio Rodriguez
- Ander Goikoetxea Arana
- Amagoia Aguirre Alcorta
- Garazi Bengoetxea Iguaran
- Maite Izagirre Irazustabarrena
- Francisco Antonio Agirre Arrizabalaga
- Amaia Irazusta Otegui
- Juan Manuel Izagirre Irazustabarrena
- Juan Maria Iparragirre Irazusta